

<p>2021EKO APIRILAREN 29AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.</p> <p>=====</p> <p><u>BERTARATUAK</u></p> <p><u>ALKATEA</u></p>	<p>ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 29 DE ABRIL DE 2021.</p> <p>=====</p> <p><u>ASISTENTES</u></p> <p><u>ALCALDESA</u></p>
---	--

Amaia Aguirre Muñoa and.

<p><u>ALKATEORDEAK</u></p>	<p><u>VICEALCALDESAS</u> <u>Y</u> <u>VICEALCALDE</u></p>
----------------------------	--

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ-PNV)
Carmen Diaz Perez (PSE-EE)
Ignacio Uriarte Gorostiaga (EAJ-PNV)
Irantzu Uriarte Gómez (EAJ-PNV)

<p><u>ZINEGOTZIAK</u></p>	<p><u>CONCEJALES</u></p>
---------------------------	--------------------------

Alvaro González Pérez (EAJ/PNV)
Janire Ocio Celada (EAJ/PNV)
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP).
Francisco J. Elorza Hormaeche (PP).
Gonzalo Zorrilla-Lequerica Pañeda (PP)
Nerea Guijarrubia Garzia (EH BILDU)
Mikel Bidosola Agirregomezkorta (EH BILDU)
Gonzalo Ayo Jimenez (PSE-EE)
Paula Amieva Clemente (E. PODEMOS)

<p><u>IDAZKARI NAGUSIA</u></p>	<p><u>SECRETARIO GENERAL</u></p>
--------------------------------	----------------------------------

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkatea Amaia Aguirre Muñoa andrea dela, egun horretako goizeko bederatzi eta erdietan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian eta formatu telematikoan/bertaratutakoa, ohiko bilkura egiteko.

Jakinarazi da osasun-pandemiako egoeraren aurrean aurrez aurreko eta asistentzia telematikoarekin deitu dela saioa. Alkatea, Idazkari Nagusia, Kontu-hartzaile Nagusia eta goian zerrendatzen diren korporatiboak bertaratu dira.

Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 46.3 artikuluan jasotako baldintzak betez, honako hauek bertaratu dira telematikoki:

Joseba Arregui Martínez (EAJ-PNV)
Iñigo Urkitza Yañez (EAJ/PNV).
Carlos Sergio Achotegui (EAJ/PNV)
Ainhoa Galduroz Alvarez (EAJ/PNV)
Arantzazu Rica Alvarez (EAJ/PNV)
Alicia González Del Valle Francos (PP)
Natalia Aranduy Zuazagoitia (PP)
Ibon Rodríguez Larrínaga (EH BILDU).
Asunción Olaeta Perez de Mendiola (PSE-EE)
Carolina Uribe de la Espriella (E. PODEMOS)

Itxaso Maseda Saratxo ezin etorria adierazi du.

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiak heldu diete. Emaizta honakoa izan da:

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia de la Alcaldesa, Amaia Aguirre Muñoa, se reunió a las nueve treinta horas de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria y formato telemático/presencial.

Se hace constar que la sesión se ha convocado con asistencia presencial y telemática ante la situación de pandemia sanitaria. Asisten presencialmente la Alcaldesa, el Secretario General, la Interventora General y los corporativos y corporativas arriba relacionados.

Asisten de forma telemática, cumplimentando los requisitos recogidos en el artículo 46.3 de la Ley reguladora de Bases de Régimen Local, los siguientes corporativos:

Itxaso Maseda Saratxo excusa su asistencia.

La Alcaldesa, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

EBAZPEN ATALA

PARTE RESOLUTIVA

47.- GETXOKO UDALBALTZAK

47- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA

**2021EKO MARTXOAREN 25EAN
EGINDAKO AURREKO OHIKO
OSOKO BILKURAREN AKTA
ONESTEA.**

2021eko martxoaren 25ean egindako ohiko bilkuraren akta aho batez onartzea.

ANTOLAKUNTZA ETA KONTUAK

**48.- UDAL HERRIKO JABARIA
ATZEMATEAGATIKO TASAREN
ZERGA-ORDENANTZAREN
ALDARAZPENA BEHIN-BEHINEAN
ONESTEA.**

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta, aho batez ondorengo erabaki da:

LEHENENGOA.- Behin-behinean onetsiko da udal jabari publiko atzemateari dagokion tasa arautzen duen zerga-ordenantzaren aldarazpena, eranskin gisa bidali den dokumentuan (aldarazpen-proiektua) jasotako terminoetan. Aldaketa horrek dakar xedapen iragankorra aldatzea. Honela idatzita geldituko da, hitzez hitz:

<<XEDAPEN IRAGANKORRA

2021eko ekitaldian zehar ezohiko %100eko hobaria aplikatuko da hemen araututako zerga-egitateen gain: B) Epigrafearen ("Taxi-geralekua) c) atalean eta E) Epigrafean ("Terrazak bide publikoan").>>

BIGARRENA.- Behin betiko onesten denean, aldatutako testu horrek ondorioak izango ditu 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera.

HIRUGARRENA.- Zerga ordenantzaren aldatetaren behin-

**ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA
CELEBRADA EL DÍA 25 DE MARZO
DE 2021.**

Se aprueba por unanimidad el acta de la sesión ordinaria celebrada el día 25 de marzo de 2021.

ORGANIZACIÓN Y CUENTAS

**48.- APROBACIÓN PROVISIONAL
DE MODIFICACIÓN DE LA
ORDENANZA FISCAL
REGULADORA DE LA TASA POR
OCUPACIÓN DEL DOMINIO
PÚBLICO MUNICIPAL.**

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas por unanimidad se acuerda:

PRIMERO.- Aprobar con carácter provisional la modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora de la tasa por ocupación del dominio público municipal, en los términos del documento que se adjunta como anexo (Proyecto de modificación). Dicha modificación supone modificar la Disposición Transitoria de forma que quede redactada con el siguiente tenor literal:

<<DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Durante el ejercicio 2021 se aplicará una bonificación extraordinaria del 100% sobre la cuantía de la tasa a los hechos imposables regulados en el apartado c) del Epígrafe B) "Parada de Taxi" y en el Epígrafe E) "Terrazas en vía pública".>>

SEGUNDO.- El texto modificado, una vez definitivamente aprobado, surtirá efectos desde el día 1 de enero de 2021.

TERCERO.- Ordenar la publicación de la aprobación provisional de la

behineko onespena udaletxe honetako iragarki oholean 30 egunez jartzeko aginduko da. Hala, interesdunek espedientea aztertu eta komenigarritzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Jendaurreko erakustaldia BAOn iragarriko da, baita lurralde historiko honetan zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean ere.

LAUGARRENA.- Erreklamaziorik aurkeztu ez bada, behin betikotzat jotzea ordenantza aldatzeko behin-behineko erabakia.

modificación de la Ordenanza Fiscal afectada en el tablón de anuncios de este Ayuntamiento durante el plazo de 30 días hábiles, a fin de que los interesados puedan examinar el expediente y presentar las reclamaciones que estimen oportunas.

Anunciar dicha exposición al público en el B.O.B y en uno de los diarios de mayor difusión de este Territorio Histórico.

CUARTO.- Elevar a definitivo el acuerdo provisional de modificación de la Ordenanza si no se han presentado reclamaciones.

PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

Ignacio Uriarte
Paula Amieva
Carmen Díaz
Ibon Rodríguez
Gonzalo Zorrilla-Lequerica
Iñigo Urkutza

BOZKETA/VOTACIÓN

BAI/SI: Aho batez / unanimidad

49.- ZABORRA BILDU, GARRAIATU ETA TRATATZEAGATIKO TASAREN ZERGA- ORDENANTZAREN ALDARAZPENA BEHIN-BEHINEAN ONESTEA.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta, aho batez ondorengo erabaki da:

LEHENENGOA.- Behin-behinean onetsiko da Zaborra biltzeko, garraiatzeko eta tratatzeko tasa arautzen duen Ordenantza Fiskalaren aldarazpena, eranskin gisa bidali den dokumentuan (aldarazpen-proiektua) jasotako terminoetan. Aldaketa horrek dakar xedapen iragankorra aldatzea. Honela idatzita geldituko da, hitzez hitz:

49.- APROBACIÓN PROVISIONAL DE MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LA TASA POR RECOGIDA DE BASURA, TRANSPORTE Y TRATAMIENTO.

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas por unanimidad se acuerda:

PRIMERO.- Aprobar con carácter provisional la modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora de la Tasa por recogida de basura, transporte y tratamiento, en los términos del documento que se adjunta como anexo (Proyecto de modificación). Dicha modificación supone modificar la Disposición Transitoria de forma que quede redactada con el siguiente tenor

literal:

<<IX.XEDAPEN IRAGANKORRA

2021. urtean %95eko ezohiko hobaria aplikatuko da tasaren zenbatekoaren gainean 4.2.- Ostalaritza tarifan jasotako zerga-egitateetan. Hala, ekitaldi osorako honako kuota hauek dira emaitza:

<<IX. DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Durante el año 2021 se aplicará una bonificación extraordinaria del 95% sobre la cuantía de la tasa a los hechos impositivos recogidos en la Tarifa 4.2.- Hostelería, resultando las siguientes cuotas para todo el ejercicio:

4.2.- OSTALARITZA	25 m2-ra arte	4,73
	25,01etik 50 m2-ra arte	5,68
	50,01etik 75 m2-ra arte	6,15
	75,01etik 100 m2-ra arte	6,63
	100,01etik 200 m2-ra arte	7,1
	200,01etik 500 m2-ra arte	9,75
	500,01etik 1000 m2-ra arte	12,19
	1000m2 baino gehiago	14,63

4.2.- HOSTELERÍA	Hasta 25 m2	4,73
	De 25,01 a 50 m2	5,68
	De 50,01 a 75 m2	6,15
	De 75,01 a 100 m2	6,63
	De 100,01 a 200 m2	7,1
	De 200,01 a 500 m2	9,75
	De 500,01 a 1000 m2	12,19
	Mas de 1000m2	14,63

BIGARRENA.- Behin betiko onesten denean, aldatutako testu horrek ondorioak izango ditu 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera.

HIRUGARRENA.- Zerga ordenantzaren aldaketaren behin-behineko onespina udaletxe honetako iragarki oholean 30 egunez jartzeko aginduko da. Hala, interesdunek

SEGUNDO.- El texto modificado, una vez definitivamente aprobado, surtirá efectos desde el día 1 de enero de 2021.

TERCERO.- Ordenar la publicación de la aprobación provisional de la modificación de la Ordenanza Fiscal afectada en el tablón de anuncios de este Ayuntamiento durante el plazo de

espedientea aztertu eta komenigarritzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Jendaurreko erakustaldia BAOn iragarriko da, baita lurralde historiko honetan zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean ere.

LAUGARRENA.- Erreklamaziorik aurkeztu ez bada, behin betikotzat jotzea ordenantza aldatzeko behin-behineko erabakia.

30 días hábiles, a fin de que los interesados puedan examinar el expediente y presentar las reclamaciones que estimen oportunas.

Anunciar dicha exposición al público en el B.O.B y en uno de los diarios de mayor difusión de este Territorio Histórico.

CUARTO.- Elevar a definitivo el acuerdo provisional de modificación de la Ordenanza si no se han presentado reclamaciones.

PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

Ignacio Uriarte
Paula Amieva
Carmen Díaz
Ibon Rodríguez
Gonzalo Zorrilla-Lequerica
Iñigo Urkutza

BOZKETA/VOTACIÓN

BAI/SI: Aho batez / unanimidad

50.- JARDUERA ETA
INSTALAZIOEKIN LOTUTAKO
ZERBITZUAK
ESKAINTZEAGATIKO ETA
ESTABLEZIMENDUAK
IREKITZEKO TASAK ARAUTZEN
DUEN ZERGA ORDENANTZAREN
ALDARAZPENA BEHIN-BEHINEAN
ONESTEA.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta, aho batez ondorengo erabaki da:

LEHENENGOA.- Behin-behinean onestea jarduera eta instalazioengatikoa nahiz lokalak irekitzeagatikoa tasa arautzen duen ordenantza fiskala, eranskin gisa gehitu den dokumentuan (Aldaketa proiektua) jasotako terminoetan. Aldaketa horren ondorioz, xedapen iragankor bat ezarriko da; honako hau esango du hitzez hitz:

50.- APROBACIÓN PROVISIONAL
DE MODIFICACIÓN DE LA
ORDENANZA FISCAL
REGULADORA DE LA TASA POR
LA PRESTACIÓN DE SERVICIOS
POR ACTIVIDADES E
INSTALACIONES Y APERTURA DE
ESTABLECIMIENTOS.

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas por unanimidad se acuerda:

PRIMERO.- Aprobar con carácter provisional la modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora de la Tasa por la prestación de servicios por actividades e instalaciones y apertura de establecimientos, en los términos del documento que se adjunta como anexo (Proyecto de modificación). Dicha modificación supone establecer una disposición transitoria cuyo tenor literal

es el siguiente:

<<XI. XEDAPEN IRAGANKORRA

2021eko ekitaldian zehar tasaren zenbatekoaren gaineko %50eko ezohiko hobaria aplikatuko zaie ordenantza honek aipatzen dituen administrazio jardueragatik sortutako zerga-egitateei.

7. artikuluan pertsona ekintzaileen alde aurreikusitako hobaria aplikatuko zaio aurreko paragrafoan araututako ezohiko hobaria aplikatuzetik ateratzen den kuotari.>>

BIGARRENA.- Behin betiko onesten denean, aldatutako testu horrek ondorioak izango ditu 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera.

HIRUGARRENA.- Zerga ordenantzaren aldaketaren behin-behineko onespena udaletxe honetako iragarki oholean 30 egunez jartzeko aginduko da. Hala, interesdunek espedienteaz aztertu eta komenigarritzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Jendaurreko erakustaldia BAOn iragarriko da, baita lurralde historiko honetan zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean ere.

LAUGARRENA.- Erreklamaziorik aurkeztu ez bada, behin betikotzat jotzea ordenantza aldatzeko behin-behineko erabakia.

<<XII. DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Durante el ejercicio 2021 se aplicará una bonificación extraordinaria del 50% sobre la cuantía de la tasa a los hechos imponibles que se devenguen por la actividad administrativa a que se refiere esta ordenanza.

La bonificación prevista en el artículo 7 a favor de las personas emprendedoras se aplicará a la cuota resultante de aplicar la bonificación extraordinaria regulada en el párrafo anterior.>>

SEGUNDO.- El texto modificado, una vez definitivamente aprobado, surtirá efectos desde el día 1 de enero de 2021.

TERCERO.- Ordenar la publicación de la aprobación provisional de la modificación de la Ordenanza Fiscal afectada en el tablón de anuncios de este Ayuntamiento durante el plazo de 30 días hábiles, a fin de que los interesados puedan examinar el expediente y presentar las reclamaciones que estimen oportunas.

Anunciar dicha exposición al público en el B.O.B y en uno de los diarios de mayor difusión de este Territorio Histórico.

CUARTO.- Elevar a definitivo el acuerdo provisional de modificación de la Ordenanza si no se han presentado reclamaciones.

PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

Ignacio Uriarte
Paula Amieva
Carmen Díaz
Ibon Rodríguez
Gonzalo Zorrilla-Lequerica
Iñigo Urkutza

BOZKETA/VOTACIÓN

BAI/SI: Aho batez / unanimidad

51.- GETXOKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKIN BATZUETAN IBILGAILUEN LURRAZALEKO ARAUPEKO APARKATZEKO ZERBITZU-EMAKIDA ESLEITZEKO ESPEDIENTEA HASTEAN, PLEGUAK ONARTZEA ETA GASTUA BAIMENTZEA.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

Lehenengoa: Getxoko zenbait bide publikotan ibilgailuak lur gainean aparkatzeko zerbitzu arautuaren emakida onartzea eta kontratazio-espeditentean sartzea nahitaezko bideragarritasun-azterlana.

Bigarrena: Aipatutako kontratazio-espeditentea onartzea, eta baimena ematea prozedura irekiaren bidez esleitzeko erregelamenduzko izapideak hasteko.

Kontratuak 4 urteko iraupena izango du, zerbitzua kudeatzen hasteko akta egiten den egunetik kontatzen hasita, eta ezin izango da luzatu.

Kontratu honek ez du berez preziorik, emakidaduna zerbitzuaren erabiltzaileen diru-bilketaren bidez ordaintzen baita. Administrazioaren aldeko gutxieneko kanon bat ezarri da, urteko 200.000 eurokoa, eta lizitatzailerik hobetu ahal izango dute.

Hirugarrena: Administrazio-kontratazioa arautuko duten baldintza administratibo berezien eta teknikoaren agiriak onartzea

Laugarrena: Erreferentziako

51.- INICIO DEL EXPEDIENTE PARA LA ADJUDICACIÓN DE LA CONCESIÓN DEL SERVICIO DE ESTACIONAMIENTO REGULADO DE VEHÍCULOS EN SUPERFICIE EN DETERMINADAS VÍAS PÚBLICAS DEL MUNICIPIO DE GETXO, APROBAR PLIEGOS Y AUTORIZAR EL GASTO.

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas por mayoría se acuerda:

Primero: Aprobar e incorporar al expediente de contratación de la concesión del servicio de estacionamiento regulado de vehículos en superficie en determinadas vías públicas del municipio de Getxo, el preceptivo estudio de viabilidad.

Segundo: Aprobar el expediente de contratación de referencia, autorizando el inicio de la tramitación reglamentaria para su adjudicación por Procedimiento Abierto.

El contrato tendrá una duración de 4 años, contados a partir de la fecha del Acta de Inicio de la Gestión del servicio, y no será prorrogable.

El presente contrato carece de precio propiamente dicho, ya que el concesionario se retribuye mediante la recaudación procedente de los usuarios del servicio. Se ha fijado un canon mínimo a favor de la Administración de 200.000 euros anuales, que los licitadores podrán mejorar.

Tercero: Aprobar los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y Técnicas que han de regir la contratación administrativa.

Cuarto: Autorizar el gasto necesario

kontrataziotik eratorritako obligazioei aurre egiteko behar den gastua baimentzea, bere izaera dela-eta segidako traktukotzat hartu behar dena, gehienez 2.200.000 eurokoa.

Bostgarrena: kontratuaren arduradun Pedro Verdugo Martín izendatzea, hots, Obra publikotako ingeniari tenkinoa.

Seigarrena: Erabaki hau betearazteko beharrezkoak diren xedapen guztiak Alkatetzaren esku uztea, esleipenerako izan ezik.

para hacer frente a las obligaciones derivadas de la contratación de referencia, que por su naturaleza ha de considerarse de tracto sucesivo, por importe máximo de 2.200.000 euros.

Quinto: Designar como responsable del contrato al Ingeniero técnico de Obras públicas, Pedro Verdugo Martín.

Sexto: delegar en la Alcaldía la adopción de cuantas disposiciones sean precisas en orden a la ejecución del presente acuerdo, excepto para la adjudicación.

PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

Alvaro González
Carolina Uribe
Carmen Díaz
Ibon Rodríguez
Fco. Javier Elorza
Janire Ocio

BOZKETA/VOTACIÓN

BAI/SI: 14 (PNV, PSE-EE)
EZ/NO: 8 (PP, EH Bildu)
ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 2 (E.Podemos)

52.- ORDAINSARIEN %0,9KO IGOERA 2021. URTERAKO.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta, aho batez ondorengo erabaki da:

Lehenengoa.- Langile funtzionarioen oinarrizko ordainsariak eta osagarriak %0,9 areagotzea, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko.

Bigarrena.- Langileen ordainsariak funtzionarioenen kontzeptu berdinetan handitzea 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, %0,9, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako

52.- INCREMENTO RETRIBUTIVO DEL 0,9% PARA EL AÑO 2021.

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas por unanimidad se acuerda:

Primero.- Incrementar las retribuciones básicas y complementarias del personal funcionario, con efectos 1 de enero de 2021, en un 0,9% con respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2020.

Segundo.- Incrementar las retribuciones del personal laboral en conceptos análogos a los del personal funcionario, con efectos 1 de enero de 2021, en un 0,9% con respecto a las vigentes a 31 de

ondorioekin.

Hirugarrena.- Behin-behineko langileen oinarritzko ordainsariak %0,9 areagotzea, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko.

Laugarrena.- Lanpostuen zerrendaren aldaketa onestea, areagotze hau aplikatzeak dakartzan zenbatekoekin. Balio berriak jasotzen dituzten taulak erantsi dira.

Bosgarrena.- Alkatetza gaitzea erabakiak gauzatzeko.

Seigarrena.- Akordio hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, lanpostuen zerrendako eranskin gisa eguneratutako ordainsarien balioekin.

diciembre de 2020.

Tercero.- Incrementar las retribuciones del personal eventual, con efectos 1 de enero de 2021, en un 0,9% respecto de las vigentes a 31 de diciembre de 2020.

Cuarto.- Aprobar la modificación de la relación de puestos de trabajo con cuantías que la aplicación de este incremento supone. Se anexan tablas con los nuevos valores.

Quinto.- Facultar a Alcaldía para la ejecución de los acuerdos.

Sexto.- Publicar el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Bizkaia con los valores retributivos actualizados como anexo de la relación de puestos de trabajo.

ORDAINSARI-KONTZEPTUEN BALIOAK
VALORES DE LOS CONCEPTOS RETRIBUTIVOS
LZren Eranskina / Anexo de la RPT

OINARRIZKO SOLDATA/ SUELDO BASE			
Azpitalaldea Subgrupo	Arrunteko Ordainsariak Pagas Ordinarias (12)	Aparteko Ordainsariak Pagas Extraord (2)	Urteko Guztirakoa Total anual
A1	14.572,68	1.498,76	16.071,44
A2	12.600,72	1.531,66	14.132,38
B	11.014,68	1.586,66	12.601,34
C1	9.461,04	1.362,86	10.823,90
C2	7.874,16	1.300,40	9.174,56
AP	7.206,96	1.201,16	8.408,12
BERARIAZKO OSAGARRIA/COMPLEMENTO ESPECÍFICO			
Tramo	"	"	"
T1	5.175,44	862,57	6.038,02
T2	6.325,46	1.054,24	7.379,71
T3	7.475,72	1.245,95	8.721,68
T4	8.625,74	1.437,62	10.063,36
T5	9.775,88	1.629,31	11.405,19
T6	10.925,90	1.820,98	12.746,88
T7	12.076,16	2.012,69	14.088,85
T8	13.226,17	2.204,36	15.430,54
T9	14.376,31	2.396,05	16.772,37
T10	15.526,33	2.587,72	18.114,05
T11	16.676,59	2.779,43	19.456,02
T12	17.826,61	2.971,10	20.797,71
T13	18.976,63	3.162,77	22.139,40
T14	20.126,77	3.354,46	23.481,23

DESTINOAGATIKO OSAGARRIA/COMPLEMENTO DE DESTINO			
CD maila Nivel CD	Arrunteko Ordainsariak Pagas Ordinarias (12)	Aparteko Ordainsariak Pagas Extraord (2)	Urteko Guztirakoa Total anual
8	2.850,71	475,12	3.325,83
9	3.038,87	506,48	3.545,34
10	3.273,76	545,63	3.819,39
11	3.556,12	592,69	4.148,81
12	3.911,85	651,98	4.563,83
13	4.266,98	711,16	4.978,14
14	4.622,96	770,49	5.393,40
15	4.978,20	829,70	5.807,91
16	5.333,82	888,97	6.222,79
17	5.689,07	948,18	6.637,24
18	6.045,16	1.007,53	7.052,69
19	6.451,51	1.075,25	7.526,76
20	6.858,09	1.143,02	8.001,11
21	7.365,90	1.227,65	8.593,55
22	7.975,06	1.329,18	9.304,23
23	8.584,81	1.430,80	10.015,62
24	9.244,94	1.540,82	10.785,77
25	9.854,58	1.642,43	11.497,01
26	11.378,37	1.896,40	13.274,77
27	12.901,92	2.150,32	15.052,24
28	14.527,42	2.421,24	16.948,66
29	16.254,39	2.709,06	18.963,45
30	18.286,47	3.047,75	21.334,22

T15	21.276,90	3.546,15	24.823,06
T16	22.427,04	3.737,84	26.164,88
T17	23.577,06	3.929,51	27.506,57
T18	24.727,20	4.121,20	28.848,40
T19	25.877,34	4.312,89	30.190,23
T20	27.027,48	4.504,58	31.532,06
T21	28.177,50	4.696,25	32.873,75
T22	29.327,64	4.887,94	34.215,57
T23	30.477,77	5.079,63	35.557,40
T24	31.627,79	5.271,30	36.899,09
T25	32.777,93	5.462,99	38.240,92
T26	33.927,95	5.654,66	39.582,61
T27	35.078,21	5.846,37	40.924,58
T28	36.228,23	6.038,04	42.266,26
T29	37.378,37	6.229,73	43.608,09
T30	38.528,38	6.421,40	44.949,78
T31	39.678,64	6.613,11	46.291,75
T32	40.828,66	6.804,78	47.633,44
T33	41.978,80	6.996,47	48.975,27
T34	43.128,82	7.188,14	50.316,95
T35	44.278,96	7.379,83	51.658,78
T36	45.429,10	7.571,52	53.000,61

HIRURTEKOAK/TRIENIOS			
Subgrupo/ azpitaldea	Arrunt. Ordainsariak/ Pagas Ordinarias(12)	Apart. Ordainsariak Pagas Extraord (2)	Ant.osag/ Cp. ant
A1	46,74	28,85	33,49
A2	38,12	27,79	32,53
C1	28,85	24,91	27,98
C2	19,64	19,44	28,47
AP*	14,78	14,78	28,99
*30/1984 Legea eta talde profesionalak (7/2007 Legea) E (Ley 30/1984) y agrupaciones profesionales (Ley 7/2007)			
BEHIN-BEHINEKOEN ORDAINSARIAK/RETRIBUCIONES P. EVENTUAL			
LANPOSTUA/PUESTO		Urteko guztirakoa/Total anual	
ALKATETZAKO AHOLKULARIA / ASESOR ALCALDIA		58.821,44€	
ALKATETZAKO AHOLKULARIA (%50)/ ASESOR ALCALDIA (50%)		29.410,72€	
UDAL T. POLITIKOEN AHOLK / ASESOR G.POLITICOS MUNIC.		58.821,44€	
UDAL T. POLITIKOEN AHOLK.(%50)/ ASESOR G.POLITICO MUNIC.(50%)		29.410,72€	
ALKATETZAKO ADMINISTRARIA/ ADMINISTRATIVO ALCALDIA		32.827,04€	
UDAL TALDE POLITIKOEN ADMIN/ ADMINISTRATIVO G.POLITICO MUNIC.		30.483,01€	

*Itzalezutako tarteek ez dute aplikazio praktikorik/Los tramos sombreados no tienen aplicación práctica

PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

Ignacio Uriarte
Paula Amieva

BOZKETA/VOTACIÓN

BAI/SI: Unanimidad

53.- KREDKITU GEHIGARRIA ONARTZEA, KULTUR ETXEKO 1. KAPITULUA FINANTZATZEKO, LANGILEEN BEHARREI AURRE EGITEKO.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

Onestea, gehigarritzko kreditua emateko espediente, zk. 2021/10, zenbatekoa 201.830,00 euro duela, aurrekontu partida hauei lotua dagoena:

Gastuak / Gastos:

Partida	Izendapena Denominación	Programa	Zenbatekoa Importe en €
---------	----------------------------	----------	----------------------------

53.- APROBACIÓN DE CRÉDITO ADICIONAL PARA LA FINANCIACIÓN DEL CAPÍTULO 1 DEL AULA DE CULTURA PARA HACER FRENTE A SUS NECESIDADES DE PERSONAL.

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas por mayoría se acuerda:

Aprobar el Expediente número 2021/10 de Crédito Adicional, por importe de 201.830,00 euros, que afecta a las siguientes partidas presupuestarias:

090/3340/4310001	Erakunde Autonomoei Organismos Autónomos	Kultur Etxea Erakunde Autonomoa Organismo Autónomo Aula de Cultura	201.830,00
Guztira Total			201.830,00

Finantzaketa / Financiación

Diruzaintzako gerakina, gastu orokorretarako Remanente de tesorería para gastos generales	201.830,00
--	-------------------

PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

Ignacio Uriarte
Carolina Uribe
Ibon Rodríguez
Irantzu Uriarte

BOZKETA/VOTACIÓN

BAI/SI: 14 (NPV, PSE-EE)

ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 10 (PP, EH Bildu, E.Podemos)

54.- BARNEKO KONTROLAREN ARAUDIAREN 1. ALDAKETA.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

1.- Onestea, Udaleko Kontu Hartzaitzak proposatuta, GETXOKO UDALEKO SEKTORE PUBLIKOAREN BARNEKO KONTROLAREN ARAUDIAREN LEHENENGO ALDAKETA ONESTEA, 2019ko azaroaren 28ko osoko bilkurako erabakiaren bidez onartua. Espedientean erantsitako edukiarekin I ERANSKIN (b.2) aldatzen da, onartu eta hurrengo egunean indarrean sar dadin.

2.- Agintzea, jendeak jakin dezan, udal webgunean argitaratzeko, aldaketa, I ERANSKIN (b.2).

54.- 1ª MODIFICACIÓN DE LA NORMATIVA DE CONTROL INTERNO.

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas por mayoría se acuerda:

1º.- Aprobar, a propuesta de la Intervención Municipal, la PRIMERA MODIFICACION de la NORMATIVA DE CONTROL INTERNO DEL SECTOR PÚBLICO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, aprobada mediante acuerdo plenario de 28 de noviembre de 2019. Se modifica el ANEXO I con el contenido que se acompaña en el expediente, ANEXO I (v.2), y para su entrada en vigor con efectos al día siguiente al de su aprobación.

2º.- Ordenar, para general conocimiento, la publicación de la modificación, ANEXO I (v.2), en el portal web municipal.

BOZKETA/VOTACIÓN

BAI/SI: 14 (PNV, PSE-EE)
ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 10 (PP EH Bildu, E.Podemos)

55.- 2021EKO URTARRILEKO ETA OTSAILEKO BARNEKO GARBIKETEN FAKTURAK ONETSI ETA AITORTZEA.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

Prozesu-ekonomiagatik, prozedurarekin jarraitzea eta dagokion kalte-ordaina finkatzea, 2021/000420, 2021/000421 zenbakidun fakturen zenbatekoaren baturan. 2021/000914, 2021/000915, espedienteko prestazioen balorazioari buruzko informazioaren arabera, eta horrek ABEE-ISS-RIVERA (IFZ: ESU67497149) ABEEari eragindako betebeharra onartzea, 287.975,80 eurokoa.

55.- APROBACIÓN Y RECONOCIMIENTO DE OBLIGACIÓN DE LAS FACTURAS DE LIMPIEZA DE INTERIORES DE ENERO Y FEBRERO DE 2021.

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas por mayoría se acuerda:

Por economía procesal, continuar el procedimiento y fijar la indemnización correspondiente en la suma del importe de las facturas nº 2021/000420, 2021/000421, 2021/000914, 2021/000915, de acuerdo con la información sobre la valoración de las prestaciones que consta en el expediente, así como reconocer la obligación derivada de la misma en favor de UTE ISS-RIVERA (NIF ESU67497149) por un importe total de 287.975,80 euros.

PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

Paula Amieva
Ibon Rodríguez
Eduardo Andrade
Alvaro González

BOZKETA/VOTACIÓN

BAI/SI: 14 (PNV, PSE-EE)
EZ/NO: 5 (PP)
ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 5 (EH Bildu, E.Podemos)

56.- URTARRILEKO, OTSAILEKO ESTA MARTXOKO POSTA ZERBITZUAREN FAKTURAK ONETSI ETA AITORTZEA.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

LEHENENGOA.- Prozesu-prozedurarekin

56.- APROBACIÓN Y RECONOCIMIENTO DE OBLIGACIÓN DE LAS FACTURAS DE CORREOS DE ENERO, FEBRERO Y MARZO.

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas por mayoría se acuerda:

PRIMERO.- Por economía procesal continuar el procedimiento y fijar, de

jarraritza eta, espedienteen prestazioen balorazioari buruz dagoen informazioaren arabera, zerbitzu-emailearen aldeko kalte-ordaina finkatzea, Udalaren bidegabeko aberastea saihestuz, aurkeztutako eta osatutako fakturekin bat datozen zenbatekoan, honako xehetasun hauekin:

acuerdo con la información sobre la valoración de las prestaciones que consta en el expediente, la indemnización correspondiente en favor del prestador del servicio, evitando así el enriquecimiento injusto del Ayuntamiento, en el importe coincidente con las facturas presentadas y conformadas, con el siguiente detalle:

FAKTURA ZK. Nº FACTURA	DATA FECHA	FAKTURATUTAKO KONTZEPTUAK CONCEPTOS FACTURADOS	ZENBATEKOA IMPORTE	ENPRESA HARTZEKODUNA EMPRESA ACREEDORA
4600074464	12/02/2021	Posta Zerbitzuak 2021/01/01tik 2021/01/31ra / Servicio Correos de 01/01/2021 a 31/01/2021	12.018,41 €	SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS, S.A.,S.M.E
4003057890	28/02/2021	Posta Zerbitzuak 2021/02/01tik 2021/02/28ra / Servicio Correos de 01/02/2021 a 28/02/2021	19.242,86 €	SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS, S.A.,S.M.E.
4003078968	31/03/2021	Posta Zerbitzuak 2021/03/01tik 2021/03/31ra / Servicio Correos de 01/03/2021 a 31/03/2021	26.396,80 €	SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS, S.A.,S.M.E.
GUZTIRA/ TOTAL			57.658,07 €	

BIGARRENA.- Aipatutako fakturak onestea, eta horien ondoriozko betebeharrak baimentzea, xedatzea eta aitortzea SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS, S.A.,S.M.E estatuko sozietateari (ESA83052407), 57.658,07 eurokoa, 1100/92010/2220200 partidan atxikitako kreditu egokiaren kargura (Erref. 2021/446, 2021/596 eta 2021/841), indarrean dagoen udal-aurrekontukoa.

SEGUNDO.- Aprobar las citadas facturas, autorizando, disponiendo y reconociendo la obligación derivada de las mismas, en favor de SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS, S.A.,S.M.E. (ESA83052407), por importe de 57.658,07 € y con cargo al crédito adecuado retenido en la partida 1100/92010/2220200 (Refs. 2021/446, 2021/596 y 2021/841), del vigente Presupuesto Municipal.

PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

Ibon Rodríguez
Ignacio Uriarte

BOZKETA/VOTACIÓN

BAI/SI: 14 (PNV, PSE-EE)

ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 10 (PP, EH Bildu, E.Podemos)

11:00etan, alkateak osoko bilkura eten du, bilkura-aretoa aireztatu ahal

Siendo las 11:00 horas la Alcaldesa suspende el pleno para que se pueda

izateko.

airear el salón de sesiones.

11:10ean ekin zaio berriro bilkurari.

Siendo las 11:10 horas se reanuda la sesión.

UDAL ORGANOEEN KONTROLA

CONTROL DE LOS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN

ANTOLAKUNTZA ETA KONTUAK

ORGANIZACIÓN Y CUENTAS

57.- UDAL-DIRUZAINTZAREN HIRUHILEKO TXOSTENAREN BERRI EMATEA, 15/2010 LEGEAREN LAUGARREN ARTIKULUAN XEDATUTAKOA BETEZ BEHARREZ (2021EKO 1.HIRUHILEKOA)

57.- DACIÓN DE CUENTA DEL INFORME TRIMESTRAL DE TESORERÍA EN CUMPLIMIENTO DE LO DISPUESTO EN EL ARTÍCULO CUARTO DE LA LEY 15/2010 (1º TRIMESTRE DE 2021)

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas,

TRIM 01/2021 Diruzaintzako Txostenaren edukiaren jakitun egon; txosten hori betebeharrak ordaintzeko legezko epeak betetzeari buruzkoa da.

Quedaron enterados del contenido del Informe de Tesorería TRIM 01/2021 sobre el cumplimiento de los plazos legales para el pago de obligaciones.

58.- HAINBAT DEKRETUREN BERRI EMATEA: AURREKONTUA GEHIGARRIZKO KREDITUZ BALIATUTA ALDARAZTEKOAK.

58.- DACIÓN DE CUENTA DE DIVERSOS DECRETOS DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE CRÉDITO ADICIONAL.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas,

Kreditu gehigarrien bidezko aurrekontu-aldaketaren Dekretu hauek jakitun egon:

Quedaron enterados de los siguientes decretos de modificación presupuestaria mediante crédito adicional:

1040//2021 zenbakidun Dekretua 9.000,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2021/03. Aulki ergonomikoak erostea.

Decreto nº 1040//2021 por un importe de 9.000,00 euros. Crédito adicional 2021/03. Adquisición de sillas ergonómicas.

1041//2021 zenbakidun Dekretua 30.000,00 euroko zenbatekoarekin.

Decreto nº 1041//2021 por un importe de 30.000,00 euros. Crédito adicional

Kreditu Gehigarria 2021/04. Kultur Etxea erakunde autonomoari funts bibliografikoak eta ekipo informatikoak berritzeko beharrezko kreditua ematea.

2021/04. Dotar al Organismo Autónomo Aula de Cultura del crédito necesario para la renovación de fondos bibliográficos y equipos informáticos.

1358//2021 zenbakidun Dekretua 17.500,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2021/08. Artxiboa antolatzea eta mantentzea.

Decreto nº 1358//2021 por un importe de 17.500,00 euros. Crédito adicional 2021/08. Organización y mantenimiento del Archivo 2021.

1399//2021 zenbakidun Dekretua 140.500,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2021/09. Osakidetzarekin lankidetzan aritzea herritarren txertaketa masiborako beharrezko prestakuntza logistikoan.

Decreto nº 1399//2021 por un importe de 140.500,00 euros. Crédito adicional 2021/09. Colaborar con Osakidetza en la preparación logística necesaria para proceder a la vacunación masiva de la población.

PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

Paula Amieva
Arantza Rica

59.- HAINBAT DEKRETUREN BERRI EMATEA: TRANSFERENTZIAK ERABILIZ AURREKONTUAK ALDARAZTEKOAK.

59.- DACIÓN DE CUENTA DE DIVERSOS DECRETOS DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE EL USO DE TRANSFERENCIAS.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas,

Jakitun egon transferentzien bidezko aurrekontu-aldaketaren Dekretu hauek:

Quedaron enterados de los siguientes decretos de modificación presupuestaria mediante el uso de transferencias:

1434/2021 zenbakidun Dekretua 35.000,00 euroko zenbatekoarekin. 2021/02 kreditu-transferentzia. Diru-laguntza izenduna Perualde Elkarteari.

Decreto nº 1434/2021 por un importe de 35.000,00 euros. Transferencia de crédito 2021/02. Subvención nominativa Asociación Perualde.

1448/2021 zenbakidun Dekretua 30.000,00 euroko zenbatekoarekin. 2021/03 kreditu-transferentzia. Getxoko udal-eraikinen autobabeserako planak kudeatzea, eguneratzea eta ezartzea.

Decreto nº 1448/2021 por un importe de 30.000,00 euros. Transferencia de crédito 2021/03. Gestión, actualización e implantación de los planes de autoprotección de los edificios municipales de Getxo.

1462/2021 zenbakidun Dekretua 1.000,00 euroko zenbatekoarekin.

Decreto nº 1462/2021 por un importe de 1.000,00 euros. Transferencia de

2021/04 kreditu-transferentzia. Zas Antirumores elkarteari izena emateko kuota.

crédito 2021/04. Cuota inscripción a Asociación Zas Antirumores.

1472/2021 zenbakidun Dekretua 126.650,00 euroko zenbatekoarekin. 2021/05 kreditu-transferentzia. Ekintzaileentzako eta enpresentzako aholkularitza- eta prestakuntza-zerbitzuak indartzea, pandemian harira 2021ean hartutako ezohiko neurrien esparruan.

Decreto nº 1472/2021 por un importe de 126.650,00 euros. Transferencia de crédito 2021/05. Refuerzo de los servicios de asesoramiento y formación a personas emprendedoras y empresas en el marco de las medidas extraordinarias adoptadas en 2021 con motivo de la pandemia.

60.- HAINBAT DEKRETUREN BERRI EMATEA: KREDITUA PRESTATZEAREN BIDEZ EGINDAKO AURREKONTUAREN ALDAKETARI BURUZKOA.

60.- DACIÓN DE CUENTA DE DIVERSOS DECRETOS DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE HABILITACIÓN DE CRÉDITO.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas,

Jakitun egon kreditua prestatzearen bidez egindako aurrekontu-aldaketaren Dekretu hauek:

Quedaron enterados de los siguientes decretos de modificación presupuestaria mediante habilitación de crédito:

1273/2021 zenbakidun Dekretua 19.986,94 euroko zenbatekoarekin. 2021/02F kreditua gaitzea. Haizeak kaltetutako Gobela kiroldegiko estalkiaren lau alboetan panel zehargarriak kentzea eta jartzea.

Decreto nº 1273/2021 por un importe de 19.986,94 euros. Habilitación de crédito 2021/02F. Retirada y colocación de paneles traslúcidos en cuatro laterales de la cubierta del polideportivo Gobela dañados por el viento.

1284/2021 zenbakidun Dekretua 19.975,00 euroko zenbatekoarekin. 2021/03F kreditua gaitzea. Getxoren eta Sopela eta Berango udalerrien arteko lotura hobetzea, Uribe Kostako korridorearen ardatz egituratzailearen bidez.

Decreto nº 1284/2021 por un importe de 19.975,00 euros. Habilitación de crédito 2021/03F. Mejora de la interconexión entre Getxo y los municipios de Sopela y Berango a través del eje estructurante foral corredor Uribe Kosta.

1480/2021 zenbakidun Dekretua 32.208,66 euroko zenbatekoarekin. 2021/04F kreditua gaitzea. Genero-indarkeriari buruzko Estatu-ituna.

Decreto nº 1480/2021 por un importe de 32.208,66 euros. Habilitación de crédito 2021/04F. Pacto de estado en materia de violencia de género.

**61.- KREDITUA
ERANSIARAZTEKO HAINBAT
DEKRETUREN BERRI EMATEA.**

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta,

Eransketaren bidezko aurrekontu-aldaketaren Dekretu hauek jakitun egon:

691/2021 zenbakidun Dekretua 2.377.855,35 euroko zenbatekoarekin (KE/2021/01 Espedientea)

741/2021 zenbakidun Dekretua 1.714.889,10 euroko zenbatekoarekin (KE/2021/02 Espedientea)

742/2021 zenbakidun Dekretua 8.477.243,77 euroko zenbatekoarekin (KE/2021/03 Espedientea)

880/2021 zenbakidun Dekretua 148.722,33 euroko zenbatekoarekin (KE/2021/04 Espedientea)

1199/2021 zenbakidun Dekretua 14.963,99 euroko zenbatekoarekin (KE/2021/05 Espedientea)

1516/2021 zenbakidun Dekretua 3.524,60 euroko zenbatekoarekin (KE/2021/06 Espedientea)

**62.- KONTUHARTZAILTZAREN
11/2021 TXOSTENAREN BERRI
EMATEA. FINANTZA-
IRAUNKORTASUNARI BURUZKOA
DA TXOSTEN HORI, ETA HONEKIN
DAGO LOTUTA:
AURREKONTUAREN ALDAKETAK
FINANTZATZEKO ASMOZ 2020KO
UDAL-AURREKONTUAREN
LIKIDAZIOAREKIN LORTUTAKO
ALTXORTEGIKO GELDIKINA
2021EKO ALDIAN (LEHENENGO
HIRUHILEKOAN) GASTU**

**61.- DACIÓN DE CUENTA DE
DIVERSOS DECRETOS DE
INCORPORACIÓN DE CRÉDITO.**

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas,

Quedaron enterados de los siguientes decretos de modificación presupuestaria mediante la incorporación de remanentes:

Decreto nº 691/2021 (Expediente IC/2021/01) por un importe de 2.377.855,35 euros.

Decreto nº 741/2021 (Expediente IC/2021/02) por un importe de 1.714.889,10 euros.

Decreto nº 742/2021 (Expediente IC/2021/03) por un importe de 8.477.243,77 euros.

Decreto nº 880/2021 (Expediente IC/2021/04) por un importe de 148.722,33 euros.

Decreto nº 1199/2021 (Expediente IC/2021/05) por un importe de 14.963,99 euros.

Decreto nº 1516/2021 (Expediente IC/2021/06) por un importe de 3.524,60 euros.

**62.- DACIÓN DE CUENTA DEL
INFORME DE INTERVENCIÓN Nº
11/2021 DE SOSTENIBILIDAD
FINANCIERA EN RELACIÓN CON
LA UTILIZACIÓN, DURANTE EL
CORRESPONDIENTE PERIODO
2021 (PRIMER TRIMESTRE), DEL
REMANENTE DE TESORERÍA PARA
GASTOS GENERALES OBTENIDO
EN LA LIQUIDACIÓN DEL
PRESUPUESTO MUNICIPAL 2020
PARA FINANCIAR
MODIFICACIONES**

OROKORRETARAKO ERABILTZEA.

Antolakuntza eta Kontueta Kontueta Informazio Batzordeak proposatuta,

1.- Udaleko Kontu-hartzaileak finantza iraunkortasunari buruz egindako martxoaren 31eko 11/2021 txostenaren edukiaren jakitun egon diruzaintzako geldikina erabiltzeari dagokionez, 2021ean (lehenengo hiruhilekoan), aurrekontuko aldaketak finantzatzeko.

2.- 11/2021 txosten hori Bizkaiko Foru Aldundian finantza-tutoretzari dagokionez eskuduna den sailari igortzea, osoko bilkuraren akta eta euskarri izan daitekeen gainerako dokumentazioarekin batera.

MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK

63.- PP ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: GETXON UR-JOLASEN ESPARRU BAT JARTZEA.

Gehiengoz, honako mozio hau atzera bota da:

Gure inguruko herri asko ari dira "ur-jolasak" direlakoak jartzen.

Kiroldegietatik edo parkeetatik gertu dauden guneak dira, nahikoa zabalak txirristak, kanoiak, kanpaiak, lurretik ateratzen diren txorrotak eta bestelako elementuak jartzeko, umeek eta gazteek urarekin jolastu ahal izan dezaten eta entretenitu daitezten.

Ur-jolasekin lotutako askotariko esperientziak dira, eta irudimena zein trebetasunaren eta motrizitatearen garapena sustatzen dute. Noski,

PRESUPUESTARIAS.

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas,

1º.- Quedaron enterados del contenido del informe de la Intervención Municipal Nº 11/2021, de 31 de marzo, sobre sostenibilidad financiera en relación con la utilización del remanente de tesorería para financiar modificaciones presupuestarias durante el 2021 (primer trimestre).

2º.- Remitir dicho informe Nº 11/2021, junto al acta de la sesión del Pleno y demás documentación que sirva de soporte, al Departamento competente en materia de tutela financiera de la Diputación Foral de Bizkaia.

MOCIONES E INTERPELACIONES

63.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S./INSTALACIÓN DE UN RECINTO DE JUEGOS ACUÁTICOS EN GETXO

Por mayoría se rechaza la siguiente moción:

Numerosos pueblos e nuestro entorno están procediendo a la instalación de los denominados "juegos de agua " o "juegos acuáticos" .

Se tratan de zonas cercanas a Polideportivos o en parques lo suficientemente amplios donde se instalan toboganes, cañones, campanas, chorros que brotan del suelo, y otras atracciones para que niños y jóvenes puedan entretenerse con el agua.

Son diversas experiencias de juegos de agua que fomenten la imaginación, el desarrollo de la destreza y la motricidad, donde, por supuesto, se

erabiltzen den ur guztia berreskuratzeko sistema bat daukate.

Instalazio horiei esker, modu erraz eta merkean lor dezakegu gure familientzako bestelako aisia-modu bat. Bada, horretarako ez da azpiegitura handirik behar eta, gainera, Fadurako instalazioak arintzen lagunduko du, saturatuta egon ohi dira eta.

Uste dugu Andra Mariko kiroldegiaren alboko gunea leku aproposa izan daitekeela hori jartzeko. Etorkizunean kanpoko igerileku batekin osatu beharko litzateke. Dena den, beste kokaleku batzuk ere ezin dira baztertu, Portu Zaharreko zelaigunea edo antzekoren bat, esaterako.

Horregatik guztiagatik, Popular udal-taldeak honako erabaki-proposamen hau aurkezten du:

ERABAKI PROPOSAMENA:

LEHENENGOA: Berehala has daitezela gure udalerrian ur-parke bat adjudikatzeko eta lizitazioa egiteko izapideak.

BIGARRENA: Udal hedabideetan horren berri eman dadila.

dispone de un sistema para recuperar toda el agua que se emplea.

Con esas instalaciones podremos disponer de una forma sencilla y económica de otra forma de esparcimiento para nuestras familias sin necesidad de grandes infraestructuras, pudiendo ayudar a descongestionar las saturadas instalaciones de Fadura.

A nuestro entender la zona anexa al Polideportivo de Andramari podría ser un lugar idóneo para su instalación, que en un futuro debería completarse con una piscina exterior, pero no tiene por qué descartarse otras ubicaciones como la explanada del Puerto Viejo u otras similares.

Por todo ello, el Grupo Municipal Popular presenta la siguiente

PROPUESTA DE ACUERDO:

PRIMERO: Que de forma inmediata se inicien los trámites para proceder a la licitación y adjudicación de un parque acuático en nuestro municipio.

SEGUNDO: Que se informe en los medios de comunicación municipales.

PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

Eduardo Andrade
Carolina Uribe
Gaonzalo Ayo
Mikel Bildosola
Carlos Sergio

BOZKETA/VOTACIÓN

BAI/SI: 5 (PP)
EZ/NO: 17 (PNV, EH Bildu, PSE-EE)
ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 2 (E. Podemos)

64.- PP ALDERDIKO UDAL

64.- MOCIÓN DEL GRUPO

TALDEAK AURKEZTUTAKO
MOZIOA: AUTOKARABANEN
TURISMOA BULTZATZEA

Gehiengoz, honako mozio hau onartu da:

Azken urteetan nabarmen areagotu da turismo ibiltaria deritzona. Autokarabanen matrikulazio kopurua eta garraio bide hori erabiltzaile herrialdeko hainbat udalerritar datozen bisitari kopurua ikusi baino ez dago.

Eta, berriki, Covid-19aren ondorioz, autokarabanen turismoa esponentzialki hazten ari da, erakunde publikoek egindako azterketen eta emandako zifren arabera. Horren arrazoi nagusiak dira, batetik, hurbiltasuna, eta bestetik, distantzia sozialerako erraztasun handiagoa eskaintzen duela beste ostatu mota batzuekin alderatuta.

Bizkaiko Foru Aldundiak emandako datuen arabera, autokarabanak aparkatzeko guneak dituzten 10 udalerrri daude lurralde historikoan.

Zoritxarrez, Getxo ez dago zerrenda horretan. Bada, Popular udal taldearen asmoa da gurea ere autokarabanei zuzendutako espazioak dituen udalerrria izatea.

Getxon ez dagoenez autokarabanentzako gune espezifikorik, horien erabiltzaileak Portu Zaharra bezalako lekuetan gelditu behar dira, gainerako ibilgailuekin batera. Arazoa da leku horiek gaur egun ez daudela prest baldintza duinak eskaintzeko ur edangarriari, elektrizitateari eta abarri dagokienez.

MUNICIPAL POPULAR S/IMPULSO
AL TURISMO DE
AUTOCARAVANAS

Por mayoría se aprueba la siguiente moción:

En los últimos años el denominado turismo itinerante ha ido incrementándose de una manera más que evidente. No hay más que ver el número de matriculaciones de autocaravanas y el número de visitantes que, utilizando este medio de transporte, vienen a los diferentes municipios del territorio nacional.

Y más recientemente a causa del Covid-19, de acuerdo a estudios realizados y a las cifras dadas por las instituciones públicas el turismo en autocaravana está creciendo de una manera exponencial por la proximidad y la mayor facilidad para el distanciamiento social, en comparación con otro tipo de alojamientos.

De acuerdo a los datos ofrecidos por la Diputación Foral de Bizkaia hay 10 municipios con áreas destinadas al estacionamiento para autocaravanas en el Territorio Histórico.

Desgraciadamente Getxo no aparece en esta lista y es intención del Grupo Municipal Popular que también seamos un municipio con espacios orientados a las autocaravanas.

Como en Getxo no hay una zona específica para las autocaravanas, los usuarios de las mismas se ven obligados a alojarse en zonas como el Puerto Viejo con el resto de vehículos, pero estos lugares en la actualidad no están preparados para ofrecer unas condiciones dignas para su estancia en cuanto a agua potable, electricidad,...

Hori dela eta, Popular udal taldeak proposatzen du autokarabanentzako bideratzeko gune bat gaitzea. Diliz estratako aparkalekua aukera ona litzateke. Izan ere, ura eta argia, garraio publikoarekiko lotura eta ikuspegi paregabea dituen leku batez ari gara.

Por eso lo que proponemos desde el Grupo Municipal Popular es la habilitación de una zona para destinarlo a autocaravanas. El estacionamiento de Estrada Diliz sería un buen ejemplo, porque estamos hablando de un lugar con agua y luz, conexión con el transporte público y con unas vistas maravillosas.

Azaldutako guztiagatik, Popular Udal Taldeak honako hau aurkezten du:

Por todo esto, el Grupo Municipal Popular presenta la siguiente

ERABAKI PROPOSAMENA:

PROPUESTA DE ACUERDO:

Lehenengoa: Getxoko Udalak autokarabanen turismoa bultzatzea eta horiek aparkatzeko gune bat gaitzea.

Primero: Que el Ayuntamiento de Getxo impulse el turismo de autocaravanas, habilitando una zona para su estacionamiento.

Bigarrena: Mozio honen berri ematea udalaren hedabideetan.

Segundo: Que se informe de la presente moción en los medios de comunicación municipales.

PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

Gonzalo Zorrilla-Lequerica
Paula Amieva
Carmen Díaz
Nerea Gujarrubia
Irantzu Uriarte

BOZKETA/VOTACIÓN

BAI/SI: 7 (PP, E. Podemos)

ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 17 (PNV, EH Bildu, PSE-EE)

65.- GETXO-EH BILDU ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: AREETAKO KALE NAGUSIAN NORABIDE BIKO BIDEGORRI BEREIZITUA SORTZEA.

65.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU S/ LA CREACIÓN DE UN BIDEGORRI DE DOBLE SENTIDO EN LA CALLE MAYOR DE LAS ARENAS

Gehiengoz, honako mozio hau atzera bota da:

Por mayoría se rechaza la siguiente moción:

Getxoko EH Bildutik hainbatetan aldarrikatu dugun bezala, ezinbestekoa da apurka-apurka gure herriko erdigunean espazioa irabaztea auto pribatuei. Kotxeek kaleetako jaun eta

Tal y como hemos reivindicado varias veces desde EH Bildu, es imprescindible ir ganando espacio gradualmente a los automóviles en el centro del municipio. Los coches siguen

jabe izaten jarraitzen dute Getxoko kale eta bide gehienetan, eta bada garaia mugitzeko beste modu batzuei lehenetasuna emateko: oinezkoak, garraio publikoa, bizikletak eta abar. Nazioartean hartzen ari diren erabakiak ere norabide horretan doaz, eta Getxo bezalako udalerrietan kotxei mugak ezarri beharko dizkiegu hurrengo urteetan.

Osasun-krisiak ere agerian utzi digu gero eta beharrezkoagoak ditugula oinez edo bizikletaz mugitzeko espazioak. Gure herriko bidegorri-sareari dagokionez, EH Bildutik hainbat ekarpen egin ditugu azken hilabeteotan: Errotatxuko zatia osatzea Berangorekin lotura egiteko; Algortako Sarrikobaso kalean bidegorria egokitzea goiko eta beheko bidegorriak lotzeko; Telletxe kaleko bidegorria konpontzea; Maidagan kalean bidegorria sortzea eta abar.

Areetako Kale Nagusiari dagokionez, Udalak asmoa iragarri du bertan plataforma bakarra sortzeko eta bizikleta eta autoentzako errepide partekatua ezartzeko, Algortako etorbideko ereduari jarraituz. EH Bildutik aurretik adierazi dugun bezala, erabaki hori ez da zuzena mugikortasunaren ikuspegitik, hainbat arrazoiengatik:

- Norabide bakarreko errepideetan, beharrezkoa da autoak eta bizikletak bereiztea, bestela autoek markatuko dutelako zein den bizikleten norabidea. Hau da, gaur egungo norabidea mantenduko balitz, bizikleta batek ezingo luke Xake Plazatik Bizkaiko Zubira joan errepide horretatik.

- Segurtasunagatik. Errepidearen zabalera horretarako aukera ematen

siendo dueños de la mayoría de las calles y caminos de Getxo, y ha llegado el momento para otorgar prioridad a otras formas de moverse: peatones, transporte público, bicicletas, etcétera. Las decisiones que se están tomando a nivel internacional también van en esa dirección, y en municipios como Getxo debemos poner límites a los coches los próximos años.

